

Maria Galianarekin hizketan

La2 • 22:30etan

Maria Galiana aktorea *Solas* filmarekin egin da ezagun. Gaur, Pedro Ruizek elkarrizketatuko du *La noche abierta*-n.



gaurko filmak Ane Muñoz

■ **HOTEL ROOM.**

Umore beltzez bustitako drama honen kalitatea ez da handia, baina, duen merituagatik besterik ez bada ere, gomendatu nahi dizuet Canal Plusko abonatuari. Hasteko, aurrekontu murrizak mugatutako ekoizpen ausarta da, bost xentimorerekin egin, eta, argumentu orijinal samarrari esker, onargarria. Film osoa, New Yorkeko hotel txiki eta merke bateko logela berean garatzen da. Ordu gutxitan, zenbait pertsonaia bitxiak are egoera bitxiagoa biziko dute logela horretan bertan. Hainbat atalez osatuta dago.

■ **LA ESPADA DE LANCELOT.**

Arturo erregearen kondairaren bertsio zahar hau, Cornel Wilde aktoreak protagonizatu eta zuzendu zuen, Jean Wallace emaztea emakumezko rol nagusian jarriz. Ekoizpen britainiarra da berez, baina dekoratu naturalan garatzen diren sekuentzia guztiak Jugoslaviako zelai eta basoetan filmatu zituzten, estra bezala bertako herriarrak erabiliz. Ezin dut esan kondaira polit horren inguruan egin diren bertsio zinematografiko zenbaezinen artean nabarmena denik, eta, gainera, zaharkitu samarra geratu da.

■ **PACTO DE HONOR.**

Luxuzko izarrak biltzen dituen aventura zahartxo honekin erraz entretenituko zarete. Kirk Douglasek rol nagusia antzeztzen du, eta Walter Matthau jatorrak, berriz, zeluloidean egindako lehen lanetako bat antzeztzen du André De Tothen aginduetara. Mendebalde Urrunean kokatuta dago; hantxe, Douglas protagonistak, indioen lurrik trenez zeharkatu beharko ditu. Indioen artean, Elsa Martinelli ezaguna azaltzen da.

■ **BREVE ENCUESTRO.**

Ez da David Leanen izenburu bereko maisulana, Bridges britainiarren *remake* arrunta

Danteren piraina gosetiak Texasen

■ **PIRANHA.** Joe Danteren film harrigarri hau gomendatu nahi dizuet, oro har ezeroso, beldurgarri eta ezatsegina dela onartzen badut ere. Piraina arriskutsu batzuekin egindako esperimendua ez da nolana hikoia. Vietnamgo gerran arma bezala erabilitako pirainak dira. Horiek Texas aldean askatuko dituzte orain, eta izugarriko kaosa eragingo dute bertako biztanleengan. Gidoia John Sayles (*Lone Star*, 1996) zuzendari interesgarriarena da. Bestalde Roger Corman ekoizle independentearen babes ezinbestekoa izan zen Dante hasiberriaren film fantastiko hau han eta hemen saltzeko.

La espada de Lancelot 1963, Cornel Wilde, 116 m. 11:00 La2	♦♦	Lluvia en los zapatos 1998, Maria Ripoll, 90 m. 22:07 C+(e)	♦♦
Tres secretos 1999, Marcus Cole, 90 m. 16:15 T5	♦♦	Piranha 1978, Joe Dante, 90 m. 22:25 M6	♦♦♦
Pacto de honor 1955, Andre de Toth, 17:40 ETB2	♦♦♦	Hotel Room 1997, C. Gay & D. Gimelberg, 100 m. 23:55 C+(e)	♦♦♦
Pourquoi pas moi? 1999, Stéphane Giusti, 95 m. 20:40 C+(f)	♦♦	Le Déc. 9. Tu ne convoiteras... 1988, Krzysztof Kieslowski, 60 m. 01:10 F2	♦♦♦
L'Ombre et la Proie 1996, Stephen Hopkins, 110 m. 20:55 F3	♦♦	Quiéreme con música 1956, Ignacio F. Iquino, 100 m. 02:00 La2	♦♦
Rai 1994, Thomas Gilou, 90 m. 20:55 M6	♦♦	Le Déc. 10. Tu ne convoiteras... 1988, Krzysztof Kieslowski, 60 m. 02:10 F2	♦♦♦
El Cuervo 1994, Alex Proyas, 97 m. 22:00 TVE1	♦♦	Breve encuentro 1974, Alan Bridges, 99 m. 02:30 A3	♦♦
Pequeños delincuentes 1995, Stephen Surjik, 87 m. 22:00 ETB2	♦♦	Un atraco perfecto 1995, Artie Mandelberg, 92 m. 04:45 T5	♦♦

♦ TXARRA ♦♦ ESKASA ♦♦♦ BALEKOA ♦♦♦♦ ONA ♦♦♦♦♦ BIKAINA



Kirk Douglas da *Pacto de Honor* filmeko aktoreetako bat.

baizik. Sofia Loren eta Richard Burton izarrak aurkezten ditu bikote protagonista bezala, baina horien presentzia erakargarria ere ez da nahikoa film txiki honen interes eskasa areagotzeko. Protagonistok, amodiozko istorio labur baina,aldi berean, guztiz bizia izango dute.

ET 1

- 06:30: Bertatik Bertara.
- 07:00: Superbat. Marrazki bizidunak eta telesailak. 'Max miresgarria', 'Pantera arrosa', 'Huckleberry Hound', 'Lukas ahatea', 'Hirukiak', 'Gudakatua, puntako eskuadroia', 'Ninja dortokak', 'Bugs Bunny'.
- 09:20: Euskal Herritik. *Saint Pierre eta Miquelongo Euskaldunak*.
- 09:50: Hau Komeria. Errepi-kapena.
- 10:15: Gure lanbide zahar-rak. Dokumentala.
- 10:45: Euskara: XXI. Mendeko Erronka. Dokumentala.
- 11:35: Bidaide. Dokumental-lak.
- 12:55: Iparraldearen orena.
- 13:05: Pedro eta Pabloren show berria. Marrazki bizidunak.
- 13:30: Gaur egun. Albistegia.
- 14:05: Hauteskunde elkar-riketak. Ricardo Ortega (IU-EB).
- 14:40: Lazkao Txiki. Marrazki bizidunak.
- 14:50: Galdestreet.
- 15:20: Egin Kontu.
- 16:50: Bidaide. Dokumental-lak.
- 18:15: Tex Averyren marrazki bizidunak.
- 18:25: Txakurrak zerura doaz.
- 18:50: G.I. Joe soldaduak. Marrazki bizidunak.
- 19:10: Parker Lewisek ez du sekula galtzen.
- 19:40: KTM!. Haur eta gazte-txontzako saioa.
- 20:28: Gaur egun.
- 21:15: Bertatik Bertara.
- 21:45: Goenkale.
- 22:30: Sorginen Laratza.
- 00:00: Euskadi Gaztea. Idi Bihotz.
- 00:50: Bakarrik.
- 02:35: Galdestreet.
- 03:00: Egin kontu.
- 04:30: Ikusgela.
- 05:20: Ameriketako euskaraz. Dokumentala.
- 05:50: Giza aberea.

ET 2

- 07:10: Del pais de los vascos. *Gabon kantak*.
- 07:40: En el cruce.
- 08:10: Palabra de ley.
- 08:45: Vida salvaje.
- 09:30: El Punto... Gombidatua: Isabel Lopez Aulestia.
- 10:00: Forum. Gombidatua: Diego Jauregi.
- 10:30: Dokumentala. *Manatees y dugones*.
- 11:20: King. Telesaila.
- 12:10: Remington Steele. Telesaila.
- 13:05: La cocina de Pedro Subijana.
- 13:20: La vida con Roger. Telesaila.
- 13:45: Loco por tí. Telesaila.
- 14:10: Informativo territorial.
- 14:28: Teleberri.
- 15:30: Lo que faltaba. Txetxu Ugaldek eta Yolanda Alzolak aurkeztutako saioa.
- 17:40: Zinema. **Pacto de honor.** Zuz.: Andre de Toth. Akt.: Kirk Douglas, Elsa Martinelli. 1955.
- 19:15: Esta es mi gente. Patricia Gaztañagak aurkeztutako saioa.
- 20:20: Da la talla en la pantalla. Lehiaketa.
- 20:58: Teleberri.
- 22:00: Zinema. **Pequeños delincuentes.** Zuz.: Stephen Surjik. Akt.: Brendan Fletcher, Myles Ferguson. 1995.
- 23:50: BBCK ekoiztutako telefilma. **El Regalo.**
- 01:25: Lo que faltaba.
- 03:20: Forum.
- 03:50: Amaiera.

irratia ♦

Euskadi Irratia. Gaurko Goizean behin saioan agendaren eta efemerideen berri emango dute goizeko 09:30etatik aurrera. 10:00etan Harkaitz Canoren eguneroko gogoeta entzun ondoren, Andres Osak munduko goma gaineko sokatira txapelketa buruz hitz egingo du. 11:00etan Estibaliz Gonzalezek *Jolasak eta kantuak*-en jolasari buruz jardungo du hizketan. 12:00etan eguraldiaren berri eman ostean, piropoak izango dituzte hizpide. Horretara-

ko, Margari Eizagirre eta Nagore Telleria gonbidatu dituzte. Azkenik, *Virus* antzezlan-a euskaraz antzeztuko duela eta, antzeleekin hitz egingo dute. Bertan izango dira, Asier Ormaza, Patxo Telleria eta Aitor Mazo aktoreak.

Arrate Irratia. Goizeko 09:00etan meza eskainiko dute Mutrikuko elizatik zuzenean. Ondoren, 10:00etatik aurrera, *Gora bihotzak* saioak beteko ditu minutuak.

Saio hori jende edadetuari eta gaixorik daudenei eskaintzen diete. Goizeko 11:15etan, Elgoibar aldera joko dute, eta hango azokaren berri emango dute. Azokan dagoen giroa eta produktuek dituzten prezioak zeintzuk diren esango dute. 12:15etatik 13:00etara, Tolosa, Zaldibar eta Elgoibarko kronikak eskainiko dituzte. Gauean, 21:15etatik aurrera herri kirolen tarte eskainiko dute. 22:00etatik 08:00etara musika entzun ahal izango da.